

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

1337

Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakundearen sarea osatzen duten gazteen aterpetxeen barne araudia.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2010eko otsailaren 18an egindako bileran, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakundearen sarea osatzen duten gazteen aterpetxeen barne araudia onartzea erabaki zuen.

Arautegi hori zabaltzeko, horren eduki osoa argitaratu da ALHAOn.

Xedapen orokorrak

1. artikulua.-

Araudi honen helburua da Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakunde (aurrerantzean GFE) osatzen duten aterpetxeen erabilera eta funtzionamenduaren baldintzak arautzea.

Erakundeak, bere kabuz zein beste lurralde historiko batzuekin edo hirugarrenekin lankidetzan, normalean antolatutako kanpainen pertsona erabiltzaileek, araudi hau ez ezik, kanpaina horietan ezarritako erabilera partikularren gaineko baldintzak ere bete beharko dituzte.

2. artikulua.-

Aterpetxea aterpekideek ostatu hartzeko eta bertan egoteko ekipamendua da.

Ostatu hartzeko baldintzak

3. artikulua.-

1.- Foru sareko aterpetxeen zerbitzuak edo lokalak erabiliz gero, Arabako Foru Aldundiko diputatuen Kontseiluak Prezio Publikoen Araudian onartutako indarreko prezioak ordaindu beharko dira.

Prezio publikoen zenbait prezio ezarriko dira:

- Gazteentzako prezio hitzartua
- Gazteentzako prezio arrunta
- Helduentzako prezio arrunta

Prezio horiek honako modalitateen arabera ezarriko dira:

- Ostatua eta gosaria baino ez.
- Ostatua eta gosaria, gehi bazkaria edo afaria.
- Mantenu osoa.

Oro har, aterpetxe bakoitzean, bai eta www.alava.net/ifj web orrian ere, kontsultatzeko egongo dira urtean irekita egoteko egunak, bai eta zerbitzuen ordutegia ere.

2.- Ostatu hartzeko eskaera egiten duten norbanakoek adindunak izan beharko dute edo, bestela, adingabeak badira, baimen egokia izan beharko dute.

3.- Eskolako ikasleen taldeek, unibertsitateko ikasleek, gazteen elkarteek edo kirolariak edo antzekoek ostatu hartzeko eskaera egin ahalko dute, eta ez dute taldeko aterpekidearen txartelik beharko, baldin eta onartzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua.-

4.- Zerbitzuez eta jardueraz baliatzeko, erabiltzaile talde bakoitza hamabi pertsonak osatu beharko du, gutxienez, kanpainen izan ezik; horrelakoetan, bakoitzaren ezaugarriek eskatzen dutena hartuko da kontuan.

5. artikulua.-

Taldea osatzen dutenak adingabeak badira, behintzat, heldu baten konpainia beharko dute, hogeitaz gazteko, eta heldu baten konpainia, sei urtetik beherako hamar adingabeak.

6. artikulua.-

Araudi honetan adierazitako zerbitzuak erabiltzeko moduak honakoak dira:

a) Erabiltzaileak, behintzat, ostatu zerbitzua eta gosaria kontratatzea.

INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

1337

Normativa de régimen interno de los albergues juveniles que forman la red del Instituto Foral de la Juventud, organismo autónomo de la Excma. Diputación Foral de Álava.

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud, en sesión celebrada el 18 de febrero de 2010, acordó aprobar la Normativa de régimen interno de los albergues juveniles que forman la red del Instituto Foral de la Juventud, Organismo autónomo de la Excma. Diputación Foral de Álava.

Dicho reglamento se difunde mediante la publicación íntegra de su contenido en el BOTHA.

Disposiciones Generales

Artículo 1.-

Es objeto de la presente normativa la regulación de las condiciones de uso y funcionamiento de los albergues que forman la red del IFJ, en adelante IFJ, organismo autónomo de la Excma. Diputación Foral de Álava.

Las personas usuarias de las campañas que con carácter general organice el Instituto por sí mismo o en colaboración con otros Territorios históricos o con terceros, se deberán atener, además de a la presente normativa, a las condiciones de uso particulares que en dichas campañas se establezcan.

Artículo 2.-

El albergue es un equipamiento destinado al alojamiento y estancia de alberguistas.

Condiciones de alojamiento

Artículo 3.-

1.- El uso de servicios y dependencias de los albergues de la red foral estará sujeto al pago de las tarifas vigentes aprobadas por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava en la Normativa de Precios Públicos.

Se establecerán distintas tarifas de precios públicos:

- Concertada jóvenes
- Normal jóvenes
- Normal adultos

Estas tarifas se aplicaran de acuerdo a las modalidades siguientes:

- Sólo alojamiento y desayuno.
- Alojamiento y desayuno con comida o cena.
- Pensión completa.

Con carácter general, en cada albergue, así como en la página web, www.alava.net/ifj, estarán disponibles para consulta, los días de apertura anuales, así como el horario de los servicios.

2.- Las personas individuales que soliciten alojamiento deberán ser mayores de edad o si son menores de edad, disponer de la correspondiente autorización.

3.- Los grupos de escolares, estudiantes universitarios, asociaciones juveniles o deportistas u otros similares, podrán solicitar alojamiento sin necesidad de disponer de carnet de alberguista de grupo, previo cumplimiento de las condiciones establecidas de admisión.

Artículo 4.-

Para hacer uso de los servicios y actividades como grupo, cada uno deberá estar compuesto al menos por doce personas, excepto en campañas, en que el número dependerá de las características de las mismas.

Artículo 5.-

Si las personas que componen el grupo fuesen menores de edad deberán ir acompañadas, como mínimo, de una persona adulta por cada veinte jóvenes y de una por cada diez si son menores de seis años.

Artículo 6.-

Las posibles formas de uso de los servicios señalados en esta normativa, son las siguientes:

a) Contratación, como mínimo de alojamiento y desayuno por usuario.

b) Erakundeak bere jardun eremuaren barruan egiten dituen kanpaina edo eskaintza berezietan izena ematea.

c) GFEn Zuzendaritzaren iritziz ezar daitezkeen beste erabilera batzuk, Arabako aterpetxeen foru sarearen helburuekin eta funtzio-namenduarekin bat etorriz.

Aterpetxeek eskaintako zerbitzu eta jarduerak eta aurreko atalak adierazitako erabilera moduak Erakundeak berak antolatuko ditu, eta pertsona erabiltzaileek berek edo hirugarrenek ezingo dituzte horiek egin, GFEn aurretik azaldutakotik salbuesteko baimena ematea gora-behera, horretarako behar bezalako justifikazioa dagoen kasuetan.

7. artikulua.-

Berariaz besterik adierazi ezean, establezimendura ezingo da heldu lehen zerbitzurako ezarritako ordua baino 2 ordu lehenago, eta azken zerbitzutik, gehienez, 2 ordu igaro ondoren irten beharko da. Gelak goizeko 11etarako utzi behar dira.

Zuhatzako aterpetxera bertako ontzietan heldu behar da; horrenbestez, erabiltzaileek ezin dute erabili beste ontzirik. Erabiltzaile talde bakoitzak sartzeko eta irteteko ordutegi bakarra izango du, eta ordutegi hori Aterpetxeko Zuzendaritzarekin adostuko da; Zuzendaritzak eskubidea izango du Aterpetxera sartzeko beste bideren bat erabiltzen duten pertsonak kanporatzeko.

Taldekilde batek bere taldekideek baino lehen utzi ahalko ditu instalazioak edo bere taldeari esleitutako egunaren edo ordutegiaren ondoren sartu ahalko da, baldin eta beste talde baten bidaian plaza hutsak badaude, taldearen egonaldi osoa ordainduta. Ez da, inolaz ere, zerbitzu individualizaturik fakturatuko.

8. artikulua.-

Aterpetxeetako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko, honako hauek izango dute lehentasuna, emandako hurrenkeraren arabera:

a) Oro har GFEn bere kabuz edo hirugarrenekin lankidetzan antolatutako kanpainetako deialdi bakoitzean adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak.

b) 30 urtetik beherakoak, baldin eta gazteen elkarrekin batekoak badira.

c) Gazte elkarteetako begirale taldeak.

d) Ikastetxeetako ikasleak.

e) Gazte taldeak, hau da, gehienbat 30 urtetik beherako pertsonen osatzen dituzten taldeak.

Halaber, beste kolektibo batzuen eskura ere badaude zerbitzu eta jarduera horiek.

9. artikulua.-

Plazak eta logelak ahalik eta erabiltzaile kopuru handienarentzat onena izango den establezimenduaren antolaketa, banaketa eta aprobetxamendua kontuan hartuta esleituko dira, instalazioaren erabilgarritasuna kontuan hartuta.

10. artikulua.-

Azkenik, Barriako, Espejoko (Jorge Díez Elorza) eta Carlos Abaitua aterpetxeek Gazteen Aterpetxeetako Espainiako Sareko (REAJ) txartela duen jendea har dezakete, edo Internacional Youth Hostel Federation-eko txartela (IYHF).

11. artikulua.-

Aterpetxeen sarearen instalazioetan debekatuta dago erretzea, alkoholdun edariak hartzea edota substantzia estupefazianteak kontsumitzea, eta ez da onartuko animaliarik sartzea.

Erreserben eskabidea

12. artikulua.-

1.- Erreserbatzeko baldintzak honakoak izango dira: plaza libreak egotea eta administrazio baldintzak betetzea.

2.- GFEn Zuzendaritzak besterik adierazi ezean, kontrataturiko zerbitzu eta jarduerak hasi baino urtebete lehenago egin ahal izango dira gazteentzako prezio hitzartuari dagozkion aterpetxe guztietarako erreserbak.

b) Inscripción en campañas u ofertas especiales, realizadas por el Instituto de conformidad con su ámbito de actuación.

c) Otros usos que se puedan establecer a criterio de la Dirección del IFJ, de acuerdo con los objetivos y funcionamiento de la red foral de albergues de Álava.

Los servicios y actividades ofrecidos por los albergues y las formas de uso a que se refiere el apartado anterior, serán realizados en exclusiva por el Instituto, no pudiendo efectuar las personas usuarias ninguno de ellas por sí o por terceras, sin perjuicio de que, en casos debidamente justificados, el IFJ pueda autorizar excepciones a lo anterior.

Artículo 7.-

Salvo que expresamente se haya indicado otra cosa, no se podrá llegar al establecimiento más que 2 horas antes de la prevista para el primer servicio y se deberá abandonar en el plazo de 2 horas después del último servicio, debiendo desocupar las habitaciones antes de las 11 de la mañana.

El acceso al albergue de Zuhatzata se realizará exclusivamente por medio de las diferentes embarcaciones con las que cuenta el albergue, no pudiendo las personas usuarias utilizar otras distintas. Cada grupo de usuarios tendrá asignado un único horario de entrada y salida, que será concertado con la Dirección del Albergue, reservándose la Dirección el derecho a expulsar a aquellas personas que accedan al Albergue por cualquier otra vía de acceso.

Un integrante del grupo podrá abandonar las instalaciones con antelación al grupo al que pertenece, o entrar en fecha u horario posterior al asignado a su grupo, siempre que haya plazas libres en el viaje de otro grupo, pagando el total de la estancia del grupo. En ningún caso se facturaran servicios individualizados.

Artículo 8.-

En el uso y disfrute del Servicio e instalaciones de los albergues, tendrán prioridad por el orden que se cita, las siguientes:

a) Las personas físicas que reúnan las condiciones que en cada convocatoria se indiquen dentro de las campañas que con carácter general organice el IFJ, por sí mismo o en colaboración con terceros.

b) Las personas menores de 30 años, pertenecientes a asociaciones juveniles.

c) Los grupos de monitores de asociaciones juveniles.

d) El alumnado de centros de enseñanza.

e) Los grupos juveniles, entendiéndose por tales aquellos mayoritariamente compuesto de personas menores de 30 años.

Los servicios y actividades quedan también a disposición de otros colectivos.

Artículo 9.-

La atribución de plazas y dormitorios se realizará teniendo en cuenta la mejor organización, distribución y aprovechamiento del establecimiento para el mayor número de usuarios teniendo en cuenta la disponibilidad de la instalación.

Artículo 10.-

Los albergues de Barriá, Espejo-Jorge Díez Elorza y Carlos Abaitua podrán acoger alberguistas con carnet de la Red Española de Albergues Juveniles (R.E.A.J.) o de la Internacional Youth Hostel Federation (IYHF).

Artículo 11.-

En la red de albergues estará prohibido fumar en sus instalaciones, el consumo de bebidas alcohólicas y/o sustancias estupeficientes y no se permitirá la entrada de animales.

Solicitud de Reservas

Artículo 12.-

1.- Las condiciones de reserva serán la disponibilidad de plazas y el cumplimiento de las condiciones administrativas correspondientes.

2.- Salvo que la Dirección del IFJ señale otra cosa, las reservas, para todos los albergues, correspondientes a la tarifa concertada jóvenes se podrán realizar con una antelación de un año a la fecha de iniciación de los servicios y actividades contratadas.

3.- Egonaldirako eskabidea Internet bidez edo GFEn edozein bulego edo aterpetxetan egin ahalko da.

Gazteentzako eta helduentzako prezio arrunteko taldeen erreserbak jarduerak hasi baino hiru hilabete lehenago egin ahalko dira, Internet bidez baino ez.

4.- Gazteentzako eta helduentzako prezio arrunteko norbanakoan gainerako erreserbak egonaldia hasi aurreko 15 egunetan egin ahalko dira, gehienez, eta Aterpetxeko Zuzendaritzaren aurretiko baimena beharko da.

5.- Edonola ere, taldeek ezingo dituzte erreserbak egin aterpetxeko egonaldia hasi aurreko 15 eguneko epean, Aterpetxeko Zuzendaritzaren baimenik izan ezean.

6.- Erreserba guztiek GFEn jardueren ondoriozko aldaketak izan ahalko dituzte.

13. artikulua.-

1.- Kanpaina orokorretako deialdiek horietako bakoitzean erabili beharreko tramitea adieraziko dute.

2.- 14. artikulua adierazitako aurrerakinaren ordainketa erreserba formalizatu eta, gehienez, hurrengo hamar egun naturaleko epean egin beharko da. Horrela egin ezik, erreserba baliogabe geratuko da, eta Erakundeak indarrik gabe utziko du, ondorio guztietarako.

3.- Kontratua sinatzean, erabiltzaileak taldearen arduraduna nor den adierazi beharko du, eta hori izango da erantzulea, aterpetxeko zerbitzuak erabiltzen diren bitartean.

Horren ardura beste pertsona batek hartuz gero, berehala jakinaraziko zaio Erakundeari.

4.- Taldea establezimendura heltzean, 3. puntuak adierazitako pertsona arduraduna Zentroko Zuzendaritzaren aurrean identifikatuko da; erreserbaren ziurtagiria aurkeztu, erabiltzaile kopurua egiaztatuta eta horien izen zerrenda emango du, eta zerrenda horretan monitoreak, irakasleak eta arduradunak nor diren zehaztuko du. Halaber, taldean egondako edozein aldaketaren edo berezitasunen berri emango du.

5.- Aurretik erreserbarik egin gabe bertan egon nahi duten pertsonak onartu egingo dira, baldin eta plazarik badago libre eta ezarritako administrazio betekizunak bete ondoren.

6.- Erreserban dieta berezirik, elikaduraren gaineko alergiaren kasurik, eta abar adieraziz gero, medikuaren txosten pertsonala aurkeztu beharko da, egoera hori egiaztatzeko.

Ordainketak eta baliogabeteak

14. artikulua.-

Pertsona erabiltzaileek aurrerakina ordainduko dute, kontratatutako zerbitzuen zenbateko osoaren kontura, Araubide Ekonomikoaren Araubideak ezarritako zenbatekoan. GFek ez du konpromisorik hartuko, harik eta konturako ordainketa egin arte; beraz, erreserbaren inprimakia baliozkoa izango da, baldin eta diru-sarreraren ziurtagiria badu.

Egonaldia amaitu ondoren, erreserba likidatuko da, eta erabiltako zerbitzuengatik kostua gehitu beharko zaio zenbateko horri, bai eta, instalazioak modu egokian ez erabiltzeagatik kalterik eragin bada, horien kostua ere, konturako zenbateko aurreratua kenduta. Fakturak modu xehatua azalduko ditu kontzeptu guztiak.

15. artikulua.-

Indarrean dagoen Araubide Ekonomikoaren Araubideak prezio publikoak, emandako zerbitzuen araberako likidazioak eta, hala badagokio, itzultzeak ezarriko ditu.

Kontratuan hitzarturiko ordutegiz kanpo instalazioak erabiltzeagatik edo bertan egoteagatik, izen honekin jasotako prezio publikoa aplikatuko da: "Instalazioak erabiltzea, hitzartutako orduetatik kanpo".

Bizikidetzarako arau orokorrak

16. artikulua.-

Aterpetxeko edozein pertsona erabiltzailek bizikidetzarako eta norberaren higienarako gizarte arauak zaindu beharko ditu, eta leku komunetan kaleko arropaz eta oinetakoz jantziko da, modu egokian.

3.- La solicitud de estancia se podrá formalizar a través de internet o en cualquiera de las oficinas y albergues del IFJ.

En el caso de las reservas de grupos correspondientes a la tarifa normal jóvenes y normal adultos, se podrán realizar con tres meses de antelación a la fecha de inicio de las actividades, exclusivamente a través de internet.

4.- Para el resto de reservas individuales de la tarifa normal jóvenes y normal adultos, estas no se podrán realizar en una fecha anterior a los 15 días previos al periodo de estancia, sin autorización previa de la Dirección del Albergue.

5.- En cualquier caso, los grupos no podrán hacer reservas dentro del periodo de 15 días antes del inicio de la estancia en el albergue, sin autorización previa de la Dirección del Albergue.

6.- Todas las reservas quedarán sujetas a posibles modificaciones originadas por actividades propias del IFJ.

Artículo 13.-

1.- Las convocatorias de campañas generales señalarán el trámite a seguir para cada una de ellas.

2.- El abono del anticipo, al que se refiere el Art. 14, deberá ser realizado en el plazo máximo de 10 días naturales desde la formalización de la reserva. De no hacerse así, aquélla perderá su efectividad, siendo anulada por el Instituto a todos los efectos.

3.- En la reserva, el usuario designará al responsable del grupo que permanecerá con el mismo durante todo el tiempo que se haga uso de los servicios del Albergue.

En caso de variación de dicha persona, se notificará inmediatamente al Instituto.

4.- En el momento de la presentación del grupo en el establecimiento, la persona responsable a que se refiere el punto 3 se identificará como tal ante la Dirección del Centro, presentará el justificante de la reserva, confirmará el número de personas usuarias, entregará la relación nominal de las mismos con especificación de quienes sean monitores/as, profesores/as o encargados/as de cometidos similares, e informará sobre cualquier modificación o particularidad del grupo.

5.- Las personas demandantes de estancia sin previa reserva serán admitidas siempre que existan plazas disponibles y previa cumplimiento de los requisitos administrativos establecidos.

6.- En el caso de que la reserva incorpore peticiones de dietas especiales, casos de alergias alimentarias, etc., será necesario presentar un informe médico personal, acreditativo de tal circunstancia.

Pagos y Cancelaciones

Artículo 14.-

Las personas usuarias abonarán un anticipo a cuenta del importe total de los servicios contratados en la cuantía que establezca la Normativa del Régimen Económico. El IFJ no adquirirá ningún compromiso en tanto no se produzca el abono del anticipo a cuenta, de manera que el impreso de la reserva solo será válido cuando este acompañado del justificante de ingreso.

Concluida la estancia, se procederá a la liquidación de la reserva, sumando el coste de todos los servicios utilizados y de los posibles daños que se hubieran producido por el mal uso de las instalaciones, y descontando la cantidad anticipada a cuenta. La factura recogerá de manera desglosada todos los conceptos que la componen.

Artículo 15.-

La Normativa de Régimen Económico vigente establecerá los precios públicos, liquidaciones en función de los servicios efectivamente prestados, y, en su caso, las devoluciones.

El uso o estancia en las instalaciones fuera del horario convenido en el contrato, conllevará la aplicación del precio público recogido con la denominación: "utilización de las instalaciones fuera del horario convenido".

Normas generales de convivencia

Artículo 16.-

Toda persona usuaria del albergue deberá cuidar las normas sociales de convivencia e higiene personal, así como vestir y calzar adecuadamente con ropa de calle en los lugares comunes.

Gosariak, bazkariak eta afariak taldeko ekintzat jotzen dira. Zerbitzuentzat ezarritako ordutegiak errespetatu egin beharko dira, establezimenduko talde, antolaketa eta ordena egokirako.

Bereziki, honako gizalegezko arauak beteko dira:

- Gauean gainerako pertsonen loa errespetatuko da.
- Liskaraldiak sortzea saihestuko da.

• Barne Araudi hau betearazteko ardura duten langileen oharrak errespetatuko dituzte.

Zerbitzuen ordutegia

17. artikulua.-

Aterpetxeak informazio taula izango du, eta hori begi bistako lekuan egongo da. Zuzendaritzak, bertan, establezimenduan arautuko duten xedapen orokor eta bereziak argitaratuko ditu. Bereziki, zerbitzuen ordutegien araubidea eta aterpetxeko instalazioen funtzionamendua: logelak, sukaldea, gosaria, bazkaria, afaria, administrazioa, instalazioen irekiera eta itxiera, eta abar.

Altzariak, kalteak eta konponketak

18. artikulua.-

Erabiltzaile oro kontu handiz ibili beharko da, eraikina, instalazioak eta altzariak egokiro kontserbatzeko, batik bat, bere logela, ohea edo ohatzea eta armairua; ez du kartelik jarriko, ez eta horiek honda ditzakeen bestelako objekturik ere, ez ateetan, ez leihotetan. Egotez dakizkiokeen kalteen arduraduna izango da eta, hala badagokio, aterpetxeko administrazioari ezbarharren berri eman beharko dio, bai eragindako kalteen berri, bai ikusitakoak berri.

Edonola ere, instalazioetan edo materialetan kalteak eragiten dituen izango da kalte eta eragozpen horien erantzule. Erantzukizun hori eta zigorrak, halakorik jarri behar izanez gero, Arabako Lurralde Historikoaren Foru Arautegian xedatutakoaren arabera eskatuko dira.

19. artikulua.-

Segurtasun arrazoiak tarteko, erabat debekatuta dago su txikiak, berogailuak, metagailuak, eta abar erabiltzea.

Bisitak

20. artikulua.-

Oro har, ez da onartuko aterpekideei bisitarik egitea instalazioaren barruan, eta horiek ezingo dute beste inor gonbidatu bertara bazkaltzera. Aterpetxera gonbidaturik sartu aurretik, Zuzendaritzaren baimena izan beharko da, aipatutako oharrei jarraiki.

Aterpekideen eskubide eta betebeharrak

21. artikulua.-

Arabako GFEn aterpetxe sarearen erabiltzaile orok honako eskubideak izango ditu:

- a) Kontratutako instalazioak eta zerbitzuak erabiltzea, araudi honek eta aterpetxe bakoitzaren barne araudian ezarritakoari jarraiki.
- b) Zerbitzuak emateko baldintza guzti-guztien gaineko informazio objektiboa, zehatza eta osoa jasotzea.
- c) Kontratazioaren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak jasotzea eta, nolnahi ere, horren ordainagiriak.
- d) Kexak edo erreklamazioak egitea, horretarako, bitarteko egokiak eskuragarri egongo dira: erreklamazio orria eta gogobetetasunaren gaineko galdera sorta.
- e) Indarrean dagoen legerian jasota dauden gainerako eskubideak.

22. artikulua.-

Hona hemen aterpetxeetako erabiltzaileen betebeharrak:

- a) Araudi honetan ezarritakoa betetzea eta, hala badagokio, aterpetxe bakoitzaren barne araubidean ezarritakoa, bai eta GFEn edo zentro bakoitzeko zuzendaritzak emandako edozein jarraibide ere.
- b) Instalazioak eta ekipamendua eta zerbitzuak egokiro erabiltzea.

Los desayunos, almuerzos y cenas se consideran actos colectivos. Los horarios establecidos para los servicios han de respetarse para el bien de la colectividad, la organización y el buen orden en el establecimiento.

Se cumplirán especialmente las siguientes reglas de urbanidad:

- Respetar el sueño de las demás personas durante la noche.
- Evitar altercados.
- Seguir las indicaciones pertinentes que reciban del personal encargado de hacer cumplir la presente Normativa de Régimen Interno.

Horarios de los servicios

Artículo 17.-

El Albergue dispondrá de un tablón informativo ubicado en un lugar bien visible. En él la Dirección publicará las disposiciones generales y particulares que han de regir el establecimiento. En particular, el régimen de horarios de los servicios y el funcionamiento de las instalaciones del albergue: habitaciones, cocina, desayuno, almuerzo, cena, administración, apertura y cierre de instalaciones, etc.

Mobiliario, Desperfectos y Reparaciones

Artículo 18.-

Toda persona usuaria deberá tener sumo cuidado con la conservación del edificio, instalaciones y mobiliario, especialmente de su habitación, cama o litera y armario, no fijando carteles ni otros objetos que puedan deteriorarlos, ni en paredes puertas y ventanas. Será responsable de cuantos desperfectos le sean imputables, y en su caso, deberá dar cuenta de las incidencias a la administración del albergue, tanto de los desperfectos ocasionados, como de los observados.

En todo caso, quien cause deterioros en las instalaciones o materiales cedidos responderá de los daños y perjuicios ocasionados. Dicha responsabilidad y las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder, se exigirán conforme a lo dispuesto en la Normativa Foral del Territorio Histórico de Álava.

Artículo 19.-

Por razones de seguridad, estará totalmente prohibido el uso de hornillos, estufas, acumuladores, etc.

Visitas

Artículo 20.-

Con carácter general, no se admitirán visitas a las personas alberguistas dentro de la instalación, ni podrán éstos invitar a comer a otras personas. El acceso de invitadas al Albergue se hará previa autorización expresa de la Dirección y de acuerdo con las instrucciones expresadas.

Derechos y obligaciones de los Alberguistas

Artículo 21.-

Serán derechos de cualquier usuario de la red de albergues del IFJ de Álava, los siguientes:

- a) Utilizar las instalaciones y servicios contratados, de acuerdo con el presente reglamento y con la normativa interna de cada albergue.
- b) Recibir información objetiva, exacta y completa sobre todas y cada una de las condiciones de prestación de los servicios.
- c) Obtener cuantos documentos acrediten los términos de su contratación y, en cualquier caso, los recibos correspondientes a la misma.
- d) Formular quejas o reclamaciones, para lo cual tendrán a su disposición los medios adecuados para ello, la hoja de reclamaciones y el cuestionario de satisfacción.
- e) Cualesquiera otros derechos que vengan reconocidos en la legislación vigente de aplicación.

Artículo 22.-

Serán obligaciones de toda persona usuaria de los albergues, las siguientes:

- a) Respetar lo establecido en el presente reglamento y, en su caso, en la normativa interna de cada albergue, y las instrucciones que dicte el IFJ o la dirección de cada centro.
- b) Hacer un buen uso de las instalaciones y de su equipamiento y servicios.

c) Instalazioetako plantillari funtzionamenduaren gainean dauden gorabeheren berri ematea, bai eta instalazioetan ikusitako haustura eta kalteen berri ere.

d) Gainerako pertsonen eskubideak defendatzea, bereiziki, aurretiaz emandako gelak eta espazio komunak erreserbatzean.

e) Instalazioetan egokiro portatzea eta, une oro, enplegatuen betebeharrak eta gainerako erabiltzaileekiko bizikidetzaren errespetatzea.

f) Aterpetxeetako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeagatik eskatutako prezio publikoak ordaintzea.

g) Aterpetxeak irekitzeko eta ixteko ordutegiak errespetatzea, eta, hori horrela, plantillaren oharrak kontuan hartzea.

h) Indarrean dagoen legerian edo arautegi honetan jasotako gainerako betebeharrak betetzea.

Zehatzeko araubidea

23. artikulua.-

Araudi honetan edo GFek edo, bere izenean, aterpetxe bakoitzeko Zuzendaritzak aplikatzeko emandako jarraibideetan ezarritakoa ez betetzeak administrazio arloko arau hauste zigorgarria eragingo du.

Erregelamendu horren kontra arau hauste larrik eginez gero, erabiltzaileak aterpetxetik kanpora bota daitezke, eta, horrez gain, erantzukizuna eska dakieke, halakorik izanez gero.

24. artikulua.-

1. Arautegi honetan, aterpetxe bakoitzeko barne araudian edo GFek edo, bere izenean, zentroko arduradunek ematen dituzten jarraibideetan ezartzen dena betetzen ez duten pertsonak edo taldeak aterpetxetik kanpora bota daitezke, edota pertsona horiei Arabako Foru Aldundiko aterpetxeetako sarean sartzea debekatu dakieke, urte batetik bost urtera arte, arau hausteen larritasunaren arabera.

2. Zehatzago esanda, hauek izango dira aterpetxetik botatzeko arrazoiak edota aterpetxean sartzeko debekurakoak:

a) Instalazio edo utzitako material edo areto eta gela komun zainetan eta kontserbazioan nahita egindako hondatzeak edo zabarkeria larriak.

b) Aterpetxeko zuzendaritzaren jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.

c) Zerbitzuen edo bizikidetzaren ordena egokiaren aurkako jarrera gogorra mantentzea, aterpetxeko beste erabiltzaile batzuekin.

d) Zerbitzuak, aretoak eta aterpetxeko beste gela batzuk erabiltzeagatik exiji daitezkeen prezio publikoak ez ordaintzea.

e) Instalazioak edo lagatako materialak, bai eta aretoak eta aterpetxearen gainerako gelak ere, dituzten helburuetarako erabili beharrean, beste zerbaitearako erabiltzea.

Erreklamazioak.

25. artikulua.-

Aterpekideek dituzten eskubideak bermatzeko, horiek eskura izango dute erreklamazio liburua.

Edonork erabili ahalko du erreklamazio liburua, baldin eta, aurretik, NANA, pasaporte edo aterpekidearen txartela erakusten badu; erreklamazioaren ondoan, identifikazioa (izenaren bidez), abizenak eta helbidea agerrarazi beharko ditu. Garaiz eta modu egokian, idatziz erantzungo zaio edo, hala badagokio, lekuan bertan, ahoz.

Azken xedapenak

Lehenengoa.- Araudi honetan jasotakoaren gaineko interpretazioari dagokionez, zalantzarik egonez gero, behin-behinean argitu ahalko du Aterpetxeko Zuzendaritzak eta, gerora, hala badagokio, GFek. Azken horren ebazpenak berehala dira betearazleak.

Bigarrena.- GFeren eskumenekoa da araudi honetan ezarritakoa garatzen duten jarraibide eta zirkularrak onestea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 22a.- Zuzendari-kudeatzailea, JASONE SOLABARRIETA TXAKARTEGI.

c) Comunicar a la plantilla de las instalaciones las anomalías de funcionamiento, roturas y deficiencias de las instalaciones que observen.

d) Respetar los derechos de las demás personas, especialmente en las reservas de salas y espacios comunes previamente concedidos.

e) Comportarse correctamente en las instalaciones facilitando en todo momento la labor de empleados, empleadas y la convivencia con otras personas usuarias.

f) Abonar los precios públicos que se exijan por la utilización de los servicios y las instalaciones de los albergues.

g) Respetar los horarios de apertura y cierre de los albergues, atendiendo las indicaciones de la plantilla en este sentido.

h) Cualesquiera otras obligaciones que se deriven de la legislación vigente o del presente reglamento.

Régimen sancionador

Artículo 23.-

El incumplimiento de lo dispuesto en esta Normativa o en las instrucciones que en orden a su aplicación dicte el IFJ, o en su nombre, la Dirección de cada albergue, constituye infracción administrativa sancionable.

En el supuesto de incumplimiento grave de dicha reglamentación, los/as usuarios/as podrán ser desalojados de inmediato del albergue, sin perjuicio de la exigencia de las responsabilidades a que hubiese lugar.

Artículo 24.-

1. Podrá expulsarse del albergue correspondiente y/o prohibirse la entrada a los albergues de la red de la Diputación Foral de Álava por un período de entre uno y cinco años, en función de la gravedad de los hechos, a aquellas personas o grupos que incumplan lo dispuesto en este reglamento, en la normativa interna de cada albergue o en las instrucciones que en orden a su aplicación dicte el IFJ o, en su nombre, las personas responsables de cada centro.

2. En concreto, constituirán motivos para la expulsión y/o prohibición señaladas los siguientes:

a) El deterioro intencionado o la negligencia grave en el cuidado y conservación de las instalaciones o materiales cedidos o el de las salas y dependencias comunes.

b) La reiterada desobediencia a las instrucciones de la dirección del albergue.

c) El mantenimiento de un comportamiento obstinadamente contrario al buen orden de los servicios o de la convivencia con otras personas usuarias del albergue.

d) El impago de los precios públicos exigibles por la utilización de los servicios, las salas y otras dependencias de los albergues.

e) La utilización de las instalaciones o materiales cedidos o de las salas y demás dependencias del albergue para fines distintos de los que constituyen su objeto específico.

Reclamaciones

Artículo 25.-

A los efectos de las garantías de los derechos que asisten a las personas alberguistas, existirá a disposición de los mismos un Libro de Reclamaciones.

Cualquiera, previa la exhibición de su DNI, pasaporte o carnet de alberguista podrá utilizar el Libro de Reclamaciones haciendo constar en el mismo, junto a la reclamación, su identificación con nombre, apellidos y domicilio. En tiempo y forma, se procederá a contestar por escrito o, si fuere el caso, en el mismo lugar verbalmente.

Disposiciones finales

Primera.- Cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de lo dispuesto en la presente Normativa, será resuelta provisionalmente por la Dirección del Albergue, y posteriormente, en su caso, por el IFJ, siendo sus resoluciones inmediatamente ejecutivas.

Segunda.- Es competencia del IFJ la aprobación de instrucciones y circulares que desarrollen lo establecido en esta Normativa.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2010.- La Directora-Gerente, JASONE SOLABARRIETA TXAKARTEGI.